KONTZERTUAK HM TXOKOAN

Udaberriko kontzertua

SARRERA 5 EURO

2012ko ekainaren 2an - 18:30tan

PACO DÍEZ

Musika eta kantu Sefardiak

EGITARAUA

1. La Cristiana Cautiva *(Marruecos)*
2. Buena Semana *(Marruecos)*
3. Tres Klavinas *(Turquía / Grecia)*
4. Koplas De Purim *(Marruecos)*
5. Alta Es La Luna *(Turquía / Grecia)*
6. Asheriko *(Bulgaria)*
7. Pai Pero *(Marruecos)*
8. Ventanas Altas *(Grecia)*
9. Moshé Salió De Misrayim *(Marruecos)*
10. En El Kafé D'Amaneser *(Turquía)*
11. Gizado De Berendjenas *(Grecia)*
12. Hi Torá Lanu Nittana *(Marruecos)*
13. Pesah A La Manu *(Bosnia)*

1961an Valladolideko Piñel de Abajo herrian jaio zen, Gaztelako barne-barneko nekazari familia batean, eta bere haurtzaroan desagertzear zegoen giro hartako sentitzeko eta pentsatzeko eran parte hartu zuen. Frantses filologian lizentziatua, 80ko hamarkadan urte pare bat eman zuen Bretainian (Brest eta Lorient) lanean. Horrek inguru hartako folk talde eta kultura tradizionalaren inguruko zentroak ezagutu eta haiekin harreman estua lortzeko aukera eman zion. Ordurako, 1975etik hasia zen Gaztela eta Leongo musika tradizionala berreskuratu eta zabaltzeko lanetan, eta geroztik bere lurraldeko musikaz gainera besteetakoa ere ezagutu eta haiekin aberastekoa izan da.

1980an La Bazanca taldea sortu zuen, eta bertan hartu zuten Paco Díez eta bere ahots, gitarra, zanfona, gaita eta perkusio tresnek gaur duten nortasuna, beti ere etxez etxe egindako herri jakituriaren bilketak emandako aberastasuna oinarri hartuta. Bakarlari gisa, gaur, musika judu-hispaniarraren erakusle nabarmenenetakoa da, La Bazancarekin 1983an "Canciones Sefardíes" diskoa grabatu zuenean hasi eta 2000n bakarrean "Romanzas de Amor Sefardíes" diskora arteko ibilbidea horren lekuko. Denera 16 disko grabatu ditu, baina bere espezialitatea penintsulako herri soinu-tresnena da, eta milaka kontzertu eta konferentzia emana da dagoeneko Frantzian, Alemanian, Italian, Grezian, Suedian, Eslovenian, Bulgarian, Israelen, Perun, Txilen, Argentinan, Paraguayen, Estatu Batuetan eta abarretan.

Paco Díez izen handi bat baino gehiago ere bada folklorearen munduan.

Kontzertu honetako egitaraua Errege Katolikoek XV. mendearen bukaeran kanporatu zituzten judutar espainiarrek beraiekin eraman eta beraien Sefarad-etik (Espainia) at espainiarrek beraiek baino freskoago mantendu dituzten Iberiar Erromantze Zaharrek osatzen dute. Tartean Balkanetan eta Marruekosen hitz egiten diren *djudezmo* eta *haketia* hizkuntzetan kantatutako abesti liturgiko eta erdi liturgikoak daude. Beste batzuk, errepikadun koplak eta belarrira atseginak diren abestiak dira, edozein kasutan entzuleak parte hartzera deitzen dituztenak.

Emanaldian zehar Paco Díezek abestitik abestira doan tartean “españolikoen” (sefardien) historiari buruzko kontuak aipatzen ditu, Espainiatik kanporatuak izan zirenetik orain arte gertatutakoak.

JUAN MARI BELTRAN & FERNANDO JALÓN

Xirolarrua

Juan Mari Beltran (Donostia, 1947) eta **Fernando Jalón** (Alberite de Iregua, 1966) 1991tik elkarrekin ari dira herri organologiaren esparruan lanean. 1997an "txun txun" marka sortu zuten eta izen horrekin merkaturatzen dituzte besteak beste ttunttunak, xirulak, gaita de bota-xirolarruak, dultzainak, txalapartak, kanaberak eta txaramelak.

Oraingo honetan Xirolarrua deitu duten proiektua prestatu dute eta hiru dira nagusiki zuzeneko emanaldiaren formatuan aurkezten diguten lan honen aurrekariak:

• Fernando Jalon partaidea zela, Errioxako *El Entresaque* taldeak soinutresna honen alde egindako berreskuratze lana. Honen ondorioz, eta Errioxako gaita zaharren piezetan oinarrituta talde honek 1991an berreskuratutako gaita de bota berria aurkeztu zuen.

• Beste urrats garrantzitsua Ourenseko "Escola Provincial de Gaitas" eskolako arduradunen eskaerari erantzunez Juan Mari Beltranek soinutresna honen inguruan egin zuen ikerketa lana izan zen. Lan hura 2004ko "Anuario da Gaita" urtekarian argitaratu zen *Xirolarru-Gaita. La cornamusa en el País Vasco* izenburuarekin.

• 2009ko uztailean zahagidun gaita eta dultzainaz osatutako musika bikote hau Italiako Molise aldeko Scapolin ospatutako *XXXIII Festival Internazionale della Zampogna* jaialdian aurkeztu zuten. Jaialdi hartarako aukeratutako errepertorioa *gaita de bota*-ren pieza eta xirolarruaren ezaugarriekin ongi egokitzen diren herri errepertorioko beste doinuekin osatu zuten.

Esperientzi zoragarri hark bultzatu zituen ibilbide honi jarraipena ematera eta horrela, errepertorio bat prestatu eta informazio liburuxka baten laguntzarekin CD batean grabatzea erabaki zuten.

Grabatutako CD honetan oinarriturik antolatu dute zuzeneko emanaldia. Nagusiki errioxar *bota* eta dultzainaz osatutako talde moduan ageri bada ere, pieza batzuetan txirimiak dultzaina ordezkatzen du eta besteetan bikotea Landetako *boha*rekin xirula eta ttunttunak osatzen dute.

Kontzertuko egitarauak bere baitan, Errioxa, Kostaldea eta Pirinio aldeetako dantza, erritmo eta estilo melodiko ezberdinez osatutako barietate handiko herri doinu eta piezak hartzen ditu, baita erritmo eta forma tradizionaletan oinarritutako, xirolarruarentzat sortutako pieza berriak.

EGITARAUA

1. Ozkabarte
2. Gure atsegina
3. Arin-arin Martirieta
4. Euskal baleazaleak
5. Zelatun (pasodoblea)
6. Hernaniko buruhandien dantza
7. Añarxume
8. Mazurka zuberotarra
9. Kadrile Copain mauletarra
10. Hau dantza
11. Naxerako Bueltak
12. Jota Montte
13. Porrusalda Montte
14. Bretainiako Dantzak / Italiako Tarantella
15. Baztango Sagar-dantza
16. Danbolinteroen kontrapasa
17. Zaragi dantza
18. Orhiko xoria
19. Txulalai
20. Tximistarri

Udaberriko kontzertua SOINUENEA - HM Txokoan

AFARIA KONTZERTU ONDOREN

Afaria Auzokalte Elkartean izango da, kontzerturako erabiliko den areto berdinean. Bertan musikariekin egon, jan, kantatu, jo eta dantzatzeko aukera izango da. Izena emateko komeni da lehen bait lehen deitzea, lekua mugatua baita.
Prezioa (kontzertua barne): 20 euro.

TIRIKITRAUKI
MUSIKA DENDA
esku-soinuak
9 zero sette
Lasarte-Oria
Tel/Fax 943 372 617
www.tirikitrauki.com

kontzertu honen laguntzaileak:

AUZOKALTE
ERGOIENGO AUZO ELKARTEA